



Prozedura / Procedimiento: Arau subsidiarioak / Normas subsidiarias
Esp.zk. / Nº expte: 2022/2-AASS
Interesduna / Interesada/o: MUNGIA UDALA, DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA DPTO INFRAESTRUCT. Y DESA. TERRI, DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA DPTO DESARROLLO ECON Y TERRITORI, MINISTERIO DE TRANSPORTES, MOVILIDAD Y AGENDA URBANA
Ordezkarria / Representante:
Lekua / Emplazamiento:
Gaia / Asunto: Mungiako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala. Egoitzazko hiri lurzoruaren "A" arauaren aldaketa / Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Mungia. Modificación de la Norma "A" del Suelo Residencial

**MUNGIKO ARAU SUBSIDIARIOEN 44. ALDAKETA PUNTUALA.
EGOITZAZKO HIRI LURZORUAREN "A" ARAUAREN ALDAKETA.**

2022ko garagarria

Egiaztapen-kode segurua:	14157770556717326545	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikokoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
1 / 13		



AURKIBIDEA

0. BERTSIO HONEN JATORRIA

1. XEDEA ETA EGILEA

2. MEMORIA INFORMATIBOA ETA JUSTIFIKATIBOA

2.1. ANTOLAMENDUAREN AURREKARIAK

2.2. EGUNGO EGOERA. DIAGNOSTIKOA

2.3. ALDAKETA PUNTUALAREN KOMENIGARRITSUNAREN,
BIDEZKOTASUNAREN ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

2.4. ALDATUTAKO ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK

2.5. ALTERNATIBEN AZTERKETA

2.6. EDUKIA ETA ARAU-ESPARRUA

2.6.1 EDUKIA, 1/2006 LEGEAREN ARABERA

2.6.2 EDUKIA, 7/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE-DEKRETUAREN ARABERA

2.6.3 EDUKIA, 213/2012 DEKRETUAREN ARABERA

2.6.4 EDUKIA, 4/2019 LEGEAREN ARABERA

2.6.5 EDUKIA, 179/2019 DEKRETUAREN ARABERA

2.6.6 EDUKIA, 4/2005 LEGEAREN ARABERA

2.7. ERAGIN SEKTORIALAK

3. ARAU SUBSIDIARIOAK GARATZEKO HIRIGINTZA ARAUAK

3.1 INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA-ARAUDIA.

3.2 ALDATUTAKO HIRIGINTZA-ARAUDIA.

4. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA

5. EKONOMIAREN ETA FINANTZEN ALDETIK DUEN BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA

6. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

I. ERANSKINA. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA

II. ERANSKINA. GENERO-IKUSPEGIAREN EBALUAZIOA

Egiaztapen-kode segurua:

14157770556717326545

Código Seguro Verificación:

Modu elektronikokoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeke, sartu hemen: <https://sede.mungia.eus/validacion>

Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <https://sede.mungia.eus/validacion>





0. BERTSIO HONEN JATORRIA

"Mungiako Arau Subsidiarioen 44. Aldaketa Puntuala. Egoitzazko Hiri Lurzoruaren "A" Arauaren aldaketa" agiriaren 2.bertsio honek hurrengo aldaketa hauek jasotzen ditu 22-03-17an sinatutako jatorrizko dokumentuaren edukiari dagokionez:

- *URA ur agentziak* 22-06-09an egindako sektore-txostena dela-eta (sarrerako erregistro zk.: 2022007095, 22-06-13koa), eta *Ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legearen 7.l)* artikulua kontuan izanda, dokumentuan gehitu egin da proposatutako erabilera berriak bakarrik onartuko direla (E1, erlijio ekipamendua; E2, irakaskuntza ekipamendua; E3, kirol ekipamendua; E4, osasun ekipamendua), baldin eta bateragarriak badira unean-unean indarrean dagoen araudiarekin, hau da, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan jasotako uholde-arriskuaren aurkako babesari buruzko araudiarekin, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako LAParekin eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduekin.
- *Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Nagusiko Garraio Idazkaritza Nagusiak* 22-07-05ean egindako sektore-txostena dela-eta (sarrerako erregistro zk.: 2022008196, 22-07-07koa), dokumentuan gehitu egin da udal-mugartearen zati bat aeronautika-zortasunen eraginpeko eremu eta espazioetan dagoenez, edozein eraikin nahiz instalazio eraikitzeke (zutoinak, antenak, aerosorgailuak -palak barne-, eraikitzeke behar diren baliabideak -eraikuntzako garabiak eta antzekoak barne-) edo landaketa egiteko, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESA) aldeko erabakia beharko dela aldeaz aurretik, egungo 584/72 Dekretuaren 30 eta 31. artikuluen arabera.

1. XEDEA ETA EGILEA

Dokumentu hau Udaleko Zerbitzu Teknikoek egin dute Mungiako Arau Subsidiarioen *Egoitzazko Hiri Lurzoruaren "A"* arau xehatua osatzeko; zehazki, A12) atalaren *baimenduriko erabilera osagarrien* edukia.

2. MEMORIA INFORMATIBOA ETA JUSTIFIKATIBOA

2.1. ANTOLAMENDUAREN AURREKARIAK

96-03-26ko Foru Aginduaren bidez (BAO, 80. zk., 97-07-28koa; akatsen zuzenketa, BAO, 145. zk., 97-07-30ekoa), behin betiko onartu ziren indarrean dauden Udal Hirigintza Plangintzako **Arau Subsidiarioak** — aurrerantzean, Arau Subsidiarioak —. Arau horiek *Egoitzazko Hiri Lurzoruaren* eremua mugatu zuten, eta horien oinarritzko hirigintza-parametroak eta baldintza bereziak arautu zituzten Arau Subsidiarioen Hirigintza Araudiaren "A" Arauan.

98-08-26ko Foru Aginduaren bidez (BAO, 174. zk., 98-09-11koa), **Arau Subsidiarioen 3. Aldaketa Puntuala** behin betiko onartu zen *Egoitzazko Hiri Lurzoruaren "A" Arauari* dagokion A17) atala aldatzeko.

2.2. EGUNGO EGOERA. DIAGNOSTIKOA

Mungiako udalerriko lurzoria eremu desberdinetan banatuta dago, eta horietako bakoitzean dagokion arau xehatua aplikatzen da. Arau xehatuek zonalde bakoitzaren hirigintza-parametro eta baldintza bereziak finkatzen dituzte, horien artean, lurzoruaren erabileraren mugaketa.

Egiaztapen-kode segurua: Código Seguro Verificación:	14157770556717326545	
Modu elektronikokoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
3 / 13		



Arau Subsidiarioetako 4.1. Arauak honako erabilera motak eta kategoriak zehazten ditu: a) *Egoitza erabilera (R.1, R.2, R.3, R.4, R.5, R.6)*; b) *Ekoizpen erabilera (P.1, P.2, P.3, P.4)*; c) *Hirugarren arloko erabilera (T.1, T.2, T.3)*; d) *Ekipamendu erabilera (E.1, E.2, E.3, E.4, E.5, E.6, E.7, E.8, E.9, E.10, E.11)*; e) *Zerbitzu erabilera (S.1, S.2, S.3)*; f) *Gune askeen erabilera (Z.1, Z.2, Z.3)*; g) *Azpiegitura erabilera (I.1, I.2, I.3, I.4, I.5, I.6, I.7, I.8, I.9)*; h) *Garaje erabilera (G.1, G.2)*. Eremu bakoitzean izaten duen garrantziaren arabera, erabilera izan ahal da: *erabilera nagusia, erabilera osagarria, debekaturiko erabilera, jasandako erabilera edo behin-behineko erabilera*.

“A” Araua *Egoitzazko Hiri Lurzoruaren* arau xehatua da eta A12) atalean erabilera kategoria desberdinak zehazten ditu hurrengo sailkapenarekin: *nahitaezko erabilera nagusiak, baimenduriko erabilera nagusiak, nahitaezko erabilera osagarriak* eta *baimenduriko erabilera osagarriak*.

Bada, “A” Arauak *baimenduriko erabilera nagusien* eta *osagarrien* artean desberdintasun nabarmena sortzen du ekipamendu erabilera mugatzerakoan. *Baimenduriko erabilera nagusi* bezala, besteren artean, E1 (erlijio ekipamendua), E2 (irakaskuntza ekipamendua), E3 (kirol ekipamendua), E4 (osasun ekipamendua), E5 (laguntza ekipamendua), E6 (gizarte-kultura ekipamendua), E7 (erkidego-egoitza ekipamendua), E8 (hotel ekipamendua), E9 (josteta, aisialdi eta ikuskizun ekipamendua) eta E10 (elkarte ekipamendua) ezartzen ditu, betiere, gehienez eraikuntza-aprobetxamenduaren %25eko muga ezarrita. Aldiz, *baimenduriko erabilera osagarri* bezala E5 (laguntza ekipamendua), E6 (gizarte-kultura ekipamendua) eta E10 (elkarte ekipamendua) ezartzen ditu soilik, behe solairu egoeran. Dena dela, arauak ez du erabilera nagusien eta osagarrien arteko muga definitzen, ezta erabilera nagusizat jotzeko gutxieneko eraikuntza aprobetxamendua ere.

Horiek horrela, *Egoitzazko Hiri Lurzorua* finkatuta dago eta bertan dauden eraikinetako behe solairuetan mota eta tamaina desberdinetako lokalak daude. Kasu batzuetan, eraikinean jada derrigorrez ezarrita dauden erabilerek eragotzi egiten dute erabilera nagusizat hartzea behe solairuetan ezarri ahal diren erabilerak. Horren ondorioz, bertan ezarri daitezkeen erabilerak osagarritzat hartu behar dira beti. Ekipamendu erabileraren kasuan, osagarritzat E5, E6 eta E10 bakarrik onartzen direnez, lokal horietan bestelako ekipamendurik ezin da ezarri.

Hortaz, “A” Arauren zehaztapen horrek kanpoan utziko lituzke hiri lurzorian egoitza erabileraren osagarritzat hartu daitezkeen hainbat ekipamendu: erlijio ekipamenduak (adibidez, erlijio desberdinek batzeko eta otoitz egiteko areto txikiak); irakaskuntza ekipamenduak (esaterako, autoeskola eta akademia txikiak); kirol ekipamenduak (besteak beste, gimnasio txikiak); osasun ekipamenduak (hots, klinika txikiak). Beraz, Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntual honen xedea da zenbait ekipamendu kategoriari *baimenduriko erabilera osagarria* izaera ematea, *baimenduriko erabilera nagusiaz* gain.

Moldaketa honek ez du eragiten eremuko eraikigarritasunean, ezta aprobetxamendu motaren aldaketan ere (ekipamendu erabilera jada hiri lurzorian onartua baitago).

2.3. ALDAKETA PUNTUALAREN KOMENIGARRITSUNAREN, BIDEZKOTASUNAREN ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Aldaketa puntualek, hirigintza-plangintzaren gainerako aldaketek bezala, ahalbidetzen dute plangintza denboran zehar gertatzen diren lege-, gizarte- edo ekonomia-eskarietara egokitzea.

Zehazki, dokumentu honek hirigintza-antolamendu xehatuaren zehaztapen espezifiko bat aldatzeari egiten dio erreferentzia, hala nola, erabilera bateragarrien zerrenda aldatzeari.

Egiaztapen-kode segurua:	14157770556717326545	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikokoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
4 / 13		



Horrela, aplikatu beharreko arau-testuingurura egokitu ahalko da, udalerraren plangintza orokorrean funtsezko eraginik izan gabe.

Hain zuzen ere, "A" Arauaren A12) atalean, *baimenduriko erabilera osagarriak* azpiatalean, honako ekipamendu komunitario kategoriak baimendu gura dira: E1, E2, E3 eta E4 e) egoeran soilik (eta lehendik dauden E5, E6 eta E10ei gehitu).

2.4. ALDATUTAKO ANTOLAMENDUAREN HELBURUAK ETA IRIZPIDEAK

Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntual honen helburua da udalerriko ekonomiaren garapena sustatzea eta bultzatzea. Hori lortzeko, besteak beste, beharrezkoa da hiri lurzoruko eraikinetako behe solairuetan baimendutako erabileren esparrua zabaltzea. Ondorioz, proposatzen da "A" Arauaren A12) atalean, *baimenduriko erabilera osagarriak* azpiatalean, E1, E2, E3 eta E4 ekipamendu komunitarioak ere onartzea.

Deskribatutako jarduketak Arau Subsidiarioetako *Egoitzazko Hiri Lurzoruari* buruzko arau xehatuaren A12) atalaren edukia osatzea baino ez dakar. Memoria honetako 3.2 apartatuan jaso da atal horren idazketa berria.

Aldaketa egin ostean, indarrean dagoen plangintzaren gainerako hirigintza-parametroak ez dira aldatuko.

2.5. ALTERNATIBEN AZTERKETA

Aldaketa puntual honen bidez planteatutako hirigintza-antolamendu xehatuaren aldaketa txikia dela kontuan hartuta, antolamendu-alternatiben azterketa ez da beharrezkoa.

2.6. EDUKIA ETA ARAU-ESPARRUA

2.6.1 EDUKIA, 1/2006 LEGEAREN ARABERA

Erabilera bateragarrien zerrenda aldatzeko, hirigintza-planaren edukia ostera ere aztertu beharko da, eta, horretarako, beharrezkoa izango da plana aldatzea *ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen* (aurrerantzean, LHL) 103.1 artikulua arabera. Gainera, LHLren 2.2 xedapen iragankorra kontuan hartuta, aldaketa osoa aipatutako legean ezarritakoari egokituko zaio.

Hain zuzen ere, LHLren 56.1.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, erabilera bateragarrien zerrenda egitea hirigintza-antolamendu xehatuaren zehaztapena da. LHLren 69.1 artikuluan, Plan Bereziaren figuraren bidez ezartzen da plangintza orokorrak zehaztutako esparru edo area jakin bat, antolamendu-tresna mota horrek LHLn esleituta duen legezko funtzioari baitagokio.

Erabilera bateragarrien zerrenda egitea garapen-plangintzaren berezko hierarkia-maila duen hirigintza-zehaztapen xehatua denez, haren aldaketa, izapidetzearen ondorioetarako, bere maila edo izaeraren arabera dagokion antolamendu-figuraren berezko arauetara egokituko da; eta plan-mota beraren bidez egin beharko da, hura onartzeko jarraitutako prozedura berari jarraituz. Hori guztia LHLren 58.1, 103.3 eta 104 artikuluen arabera.

Kasu zehatz honetan, aurrekarietan adierazi den bezala, erabilera bateragarrien zerrenda *Egoitzazko Hiri Lurzoruari "A" Arauan* ezarri zen, Arau Subsidiarioetako Eremuen araberrako Arau Xehatuaren atalaren barruan.



Horrela, eta ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzen duten ekainaren 3ko premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 30. artikulua arabera, antolamendu xehatuaren aldaketari dagokionez, egokitzen da dokumentu honen xede den aldaketa izapidetzea, aldaketa puntualaren figuraren arabera eta LHLren 95., 96. eta 97. artikuluetan ezarritako onarpen-prozeduraren arabera.

Zehazki, LHLren 68. artikuluan adierazitako dokumentu hauetan formalizatzen da edukia, baina bere xedera eta helmenera egokituta:

- “a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta plan Orokorrak ezarritako egiturazko eta zuzentzarazko antolamenduari egokitzea.*
- b) Informazio-planoak.*
- c) Antolamendu xehatuaren planoak.*
- d) Egikaritzea antolatzeko eta kudeatzeko jarraibideen azterketa.*
- e) Plan orokorreko arauak garatzeko hirigintza-arauak.*
- f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.”*

2.6.2 EDUKIA, 7/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE-DEKRETUAREN ARABERA

Aldaketa puntual hau ez da *Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Suelo y Rehabilitación Urbana* (aurrerantzean, TRLSRU) delakoaren 7.1 artikuluan definitutako hirigintza-eraldaketako jarduketa antolatzeko tresna; halandaze, ez dagokio TRLSRUren 22.4 artikuluan aipatutako jasagarritasun ekonomikoari buruzko txostena edo memoria dokumentazioan sartzea.

Edozelan ere, azpimarratu behar da jarduketak ez duela inolako eraginik izango udal-ogasunean, ez baitu behar onartutako plangintzan aurreikusitakoez bestelako azpiegiturarik, ezta zerbitzu gehigarrikerik ere, eta eremuko lurzorua xedeari eutsiko dio. Gainera, ez da aurreikusten etorkizunean urbanizazioak egingo direnik, ez eta toki-administrazioari lagatuko espazio publikoak mantentzeko baldintzak aldatuko direnik ere.

Bestalde, aldaketak hiri-ingurunearen gaineko jarduketak gauzatzeko baldintzak aldatzen dituen antolamendu-elementu bati eragiten dio, baina soilik bizitegitarako hiri-lurzoruan kokatutako eraikinetako beheko solairuetan hainbat erabilera kokatzeko aukerak zabaltzeari dagokionez.

Horrela, bada, indarrean dagoen Arau Subsidiarioek arautzen dituzten gainerako hirigintza-parametroei eusten zaie, bai eta eremuaren eraikuntza-aukerei eta jada gauzatutako antolamenduaren ondoriozko lurzati eraikigarrien konfigurazioari ere; hori horrela, ez da beharrezkotzat jotzen TRLSRUren 22.5 artikuluan aipatzen den jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa aztertzea.

2.6.3 EDUKIA, 213/2012 LEGEAREN ARABERA

Aldaketa Puntual honek ez du aurreikusten hirigintza-garapenik egitea, ezta erabilera urbanistikoaren kalifikazio berriak ere, beraz, ez da behar *urriaren 16ko Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuaren 37.* artikuluan aipatutako Eragin Akustikoari buruzko lerketa.

2.6.4 EDUKIA, 4/2019 LEGEAREN ARABERA

Aldaketa Puntual hau antolamendu xehatuko dokumentu bat da, eta hirigintza-antolamendu xehatuaren aldaketa txikia da. Hori dela eta, *otsailaren 21eko Euskal Autonomia Erkidegoko*

Egiaztapen-kode segurua: Código Seguro Verificación:	14157770556717326545	
Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
6 / 13		



Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ez denez egiturazko plangintzaren dokumentua, eta ez denez orain arte bertan aipatzen den erregelamendua sustatu (besteak beste, azterlan hori barne hartu behar duten antolamendu xehatuko planak zehazteko), ez da egin behar jasangarritasun energetikoari buruzko azterlana.

2.6.5 EDUKIA, 179/2019 DEKRETUAREN ARABERA

I. Eranskinean dago dokumentu honetan hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa bete beharra justifikatzen duen txostena, kontuan izanda *azaroaren 19ko Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren 50. eta 51. artikulua*.

2.6.6 EDUKIA, 4/2005 LEGEAREN ARABERA

II. Eranskinean dago dokumentu honetan genero-ikuspegia ebaluatu dela justifikatzen duen txostena, kontuan izanda *otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 artikulua*ren printzipio orokorra, eta 19. (8. xedapen gehigarriarekin batera) eta 46.1 artikulua.

2.7. ERAGIN SEKTORIALAK

Aldaketa Puntualak Arau Subsidiarioetako *Egoitzazko Hiri Lurzoruaren* eremura mugatzen du bere xedea; zehazki, *Mungiako erdiguneko egoitzazko hiri lurzorura* eta *Larrauriko herrigunera* (22tik 44rako planoetan adierazten da zein den muga).

ERREPIDEAK

Larrauriko herrigunean, BI-631 Oinarrizko Sarea (Sare Laranja) foru-errepidearen alboan dauden eraikinetako beheko solairuak dokumentu honen eremuaren barruan sartzen dira, eta, beraz, hura onartzeak bide horren eraginpeko-eremuan jarduketak egitea ahalbidetuko du. Gainera, azterlanaren eremuari azpiegitura horren zortasun akustikoko eremuaren mugaketak eragiten dio, nahiz eta eremuaren hirigintza-garapena finkatuta egon.

URA

Azaroaren 19ko EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duen 449/2013 Dekretuaren III. Eranskinaren dokumentazio grafikoaren arabera, *Mungiako erdiguneko egoitzazko hiri lurzorua* ipar-mendebaldea *Butroi* ibaiaren uholde-arrisku eremuan dago; hain zuzen ere, II. mailako tarteko ($50 \text{ km}^2 < C < 100 \text{ km}^2$) 10, 100 eta 500 urteko itzulketa-epealdietan eta zati batean lehentasunezko fluxu-gunean dago, baita eremu garatuetan dauden ertzekin mugan ere. Bestalde, *Larrauriko herrigunearen* ipar-ekialdea ere *Iturriondo erreka*ren uholde-arrisku eremuan dago, baina 0 mailako tarteko ($1 \text{ km}^2 < C < 10 \text{ km}^2$) 10, 100 eta 500 urteko urteko itzulketa-epealdietan eta zati batean lehentasunezko fluxu-gunean dago, bai eremu garatuetan dauden ertzekin mugan bai hirigintza garapen berriak izan ditzaketan ertzekin mugan.

KUTSATUTAKO LURZORUAK

Eremuak barne hartzen ditu inbentarioan dauden lursailak, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituztenean edo dituztenean. Inbentario hori *ekainaren 25eko Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen* 46. artikuluan aipatzen da. Lege hori hasiera batean Eusko Jaurlaritzaren *irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren* bidez onartu zen, eta erakunde horren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 21-12-17ko Aginduaren bidez eguneratu zen (2. artikulua arabera, Inbentarioaren informazio eguneratua GeoEuskadin dago eskuragarri).

ZORTASUN AERONAUTIKOAK


Aldaketa Puntualak Bilboko aireportuko aireontzi maniobra zortasunen ingurutzaileri dagokion eremuan eragiten duen antolamenduaren zehaztapen bat osatzen du (VOR RWY 28 bitarteko hurbilketaren muga, 665 m-ko altitudea; VOR RWY 30 bitarteko hurbilketaren muga, 715 m-ko altitudea), *Real Decreto 370/2011, de 11 de marzo, por el que se actualizan las servidumbres aeronáuticas del aeropuerto de Bilbao* delakoak eguneratuta.

3. PLANGINTZA OROKORRA GARATZEKO HIRIGINTZA ARAUAK

3.1 INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA-ARAUDIA

Aldaketa puntual hau Arau Subsidiarioen “A” Arauaren A12) atalari baino ez zaio aplikatuko. Jatorrizko testua, akatsen zuzenketa eta aldaketa puntuala kontuan izanda, honako hau da egungo testua:

«A» Araua.—*Egoitzazko hiri lurzorua*
(...)

Egiaztapen-kode segurua:	14157770556717326545	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
8 / 13		



A12) Erabilerak:

Nahitaezko erabilera nagusiak

— *Egoitzazkoa: R4: Gutxienez eraikintza-aprobetxamendu osoaren %65. 80 etxebizitza baino gehiago sortzen dituzten burutzapenuneetan %10 herri babeseko etxebizitzetarako izango da.*

— *Gune askeak: Z2, Z3: Agiri grafikodunetan adierazi dira.*

— *Azpiegitura: I1: Herri titulartasunekoa.*

Baimenduriko erabilera nagusiak

— *Hirugarren sektorea: T1, T2, T3: eraikintza-aprobetxamendu osoaren %30 gehienez.*

— *Ekipamendua: E1, E2, E3, E4, E5, E6, E7, E8, E9, E10: eraikintza-aprobetxamendu osoaren %25 gehienez.*

— *Zerbitzuak: S1, S2: eraikintza-aprobetxamendu osoaren %15 gehienez.*

Nahitaezko erabilera osagarriak

— *Azpiegiturak: I4, I5, I6, I7, I8, I9: bide-sarearen gehigarri gisa, b) egoeran, salbu eta I9, a) egoeran.*

— *Garajea: Arau orokorretan adierazitako gutxieneko zenbatekoa, c) edo d) egoeran.*

Baimenduriko erabilera osagarriak

— *Egoitzazkoa: R6: Ekipamendu eta zerbitzu erabileraren osagarri soilik.*

— *Ekoizpena: P1, P3: 1 eta 2. mailak, e) egoeran soilik.*

— *Hirugarren sektorea: T1, T2, T3: e) egoeran soilik.*

— *Ekipamendua: E5, E6, E10: e) egoeran baino ez.*

— *Garajea: Eskatzen den gutxieneko kopurua halako bi gehienez, c) edo d) egoeran.*

3.2 ALDATUTAKO HIRIGINTZA-ARAUDIA

Esan bezala, *Egoitzazko Hiri Lurzoruaren "A"* Arauaren A12) atala aldatuko da bakarrik. Honako hau izango da:

«A» Araua.—Egoitzazko hiri lurzorua
(...)

A12) Erabilerak:

Nahitaezko erabilera nagusiak

— *Egoitzazkoa: R4: Gutxienez eraikintza-aprobetxamendu osoaren %65. 80 etxebizitza baino gehiago sortzen dituzten burutzapenuneetan %10 herri babeseko etxebizitzetarako izango da.*

— *Gune askeak: Z2, Z3: Agiri grafikodunetan adierazi dira.*

— *Azpiegitura: I1: Herri titulartasunekoa.*

Baimenduriko erabilera nagusiak

— *Hirugarren sektorea: T1, T2, T3: eraikintza-aprobetxamendu osoaren %30 gehienez.*

— *Ekipamendua: E1, E2, E3, E4, E5, E6, E7, E8, E9, E10: eraikintza-aprobetxamendu osoaren %25 gehienez.*

— *Zerbitzuak: S1, S2: eraikintza-aprobetxamendu osoaren %15 gehienez.*

Nahitaezko erabilera osagarriak

— *Azpiegiturak: I4, I5, I6, I7, I8, I9: bide-sarearen gehigarri gisa, b) egoeran, salbu eta I9, a) egoeran.*

Egiaztapen-kode segurua:	14157770556717326545	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikokoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
9 / 13		



— *Garajea: Arau orokorretan adierazitako gutxieneko zenbatekoa, c) edo d) egoeran.*

Baimenduriko erabilera osagarriak

— *Egoitzazkoa: R6: Ekipamendu eta zerbitzu erabileraren osagarri soilik.*

— *Ekoizpena: P1, P3: 1 eta 2. mailak, e) egoeran soilik.*

— *Hirugarren sektorea: T1, T2, T3: e) egoeran soilik.*

— *Ekipamendua: E1*, E2*, E3*, E4*, E5, E6, E10: e) egoeran soilik.*

**Bakarrik onartuko dira, baldin eta bateragarriak badira unean-unean indarrean dagoen araudiarekin, hau da, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan jasotako uholde-arriskuaren aurkako babesari buruzko araudiarekin, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeako LAParekin eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduarekin.*

— *Garajea: Eskatzen den gutxieneko kopurua halako bi gehienez, c) edo d) egoeran.*

Zortasun aeronautikoak: lurraldearen gaineko afekzioak

— **Udal-mugartearen zati bat aeronautika-zortasunen eraginpeko eremu eta espazioetan dagoenez, edozein eraikin nahiz instalazio eraikitze (zutoinak, antenak, aerosorgailuak -palak barne-, eraikitze behar diren baliabideak -eraikuntzako garabiak eta antzekoak barne-) edo landaketa egiteko, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren (AESA) aldeko erabakia beharko da aldez aurretik, egungo 584/72 Dekretuaren 30 eta 31. artikuluen arabera.**

4. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA

Eremua finkatuta dagoenez eta aldaketa honen irismena eremuaren hirigintza-kudeaketan eraginik ez duen antolamendua zehaztera mugatzen denez, ez da beharrezkotzat jotzen LHLren 68.d) artikuluan aipatutako azterlana egitea.

5. EKONOMIAREN ETA FINANTZEN ALDETIK DUEN BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA

LHLren 68.f) artikulua agindutakoaren arabera (*Real Decreto 2159/1978, de 23 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Planeamiento para el desarrollo y aplicación de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana* delakoaren 55. eta 63. artikuluekin batera), Plan Berezi batean jasotako dokumentazioaren artean ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasun azterketa agertu behar da.

Moldaketa honek ez du Arau Subsidiarioen azterketa ekonomikoan inolako eraginik, ez baitu bere garapenerako baldintzetan ezta egikaritze aurreikuspenetan ere inolako aldaketarik aurreikusten. Baimendutako ekipamendu osagarrien kategoriak zabaltzea du soil-soilik helburu.

6. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

Ez da Arau Subsidiarioen dokumentazio grafikoa aldatzen, beraz berorrek indarrean dirau.

Egiaztapen-kode segurua:	14157770556717326545	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatze, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
10 / 13		



I. ERANSKINA. HIZKUNTZA-INPAKTUAREN EBALUAZIOA.

Mungia Udalak aldaketa puntual bat egingo deutse indarrean dagozan Arau Subsidiarioei (1996ko martiaren 26an onartu eta 1997ko apirilaren 28an BAO publikatu ziran). Aldaketa hori behe solairuetarako baimendutako erabileren ganekoa izango da, hain zuzen bere, lehendik baimenduta dagozan erabilerari honakoak erantsi nahi jakez: E1, E2, E3 eta E4 epigrafeetan sartzen diran ekipamendu erabilera guztiak.

Aldaketa horrek izango dauen eragin nagusia hauxe izango da: aurrerantzean behe solairuetan erlijio, irakaskuntza, kirol eta osasun jarduerak garatu ahal izango dirala.

179/2029 Dekretuak V. kapituluaren arautzen dau zein kasutan eta zelan baloratu behar dan udal planek herriko euskeraren erabileran daukien inpaktua, baita eragin hori -negatiboa bada- konpentsatzeko ze tresna erabili behar dan bere (hizkuntza-inpaktuaren azterlana).

Dekretu horren 50. artikulua zerrendatzen ditu ebaluatu behar diran plan eta proiektu barriak. Betebehar hori, baina, proiektu eta plan barriari ez eze, horreen funtsezko aldaketei bere ezartzen deutse. Plan eta proiektu horreen artean "Plangintzako arau subsidiarioak" aitatzen ditu.

51. artikulua, barriz, hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitetik salbuetsita dagozan kasuak zerrendatzen ditu, eta zerrenda honetan honakoak agertzen dira:

- "a) Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean plan edo proiektuetan.*
- b) Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean."*

Kasu honetan ez dirudi funtsezko aldaketa danik, lehendik bere herrigunean dagozan ekipamenduen berrantolaketa bat baino ez da eta.

Hizkuntzaren erabileraren ikuspegitik begiratuta, galdera nagusi bati erantzun behar deusagu: aldaketa horrek ekarriko dau hiztun (eta alkarrizketa) gehiago herrira? Ez dau emoten horrek herritar gehiago ekarriko dauenik, izan bere, jarduera horreek lehendik egiten dira herrian.

Ganera, ezelango eragina egotekotan, euskeraren erabilerarako positiboa izango litzateke. Izan bere, kale-mailako lokalak "jendaurrekoago"-edo dira eta euskeraren erabilera beharrezkoago bihurtzen da eurentzat, hala eskatzen dabe-eta herritarrek. Hori bai, kaleko paisaia izan lei eragina, ganerako lokal guztiak zabaltzen diranean bezala, baina hori ohiko komunikazio eta informazio kanpaina baten bidez bideratu beharko da.

Horrenbestez, aldaketa puntual hau hizkuntza-inpaktuaren ebaluaziotik salbuetsitako kasutzat jotea proposatzen dot.

Egiaztapen-kode segurua:	14157770556717326545	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikokoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
11 / 13		



II. ERANSKINA. GENERO-IKUSPEGIAREN EBALUAZIOA.

Dokumentu honetan zehar azaldu den bezala, Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren helburu bakarra da *Egoitzazko Hiri Lurzoruaren "A" Arauaren A12*) atalean, *baimenduriko erabilera osagarriak* azpiatalean, zenbait ekipamendu kategoria baimentzea lehendik daudenei gehitzeko.

Beraz, bizitegirako hiri-lurzoruan dauden eraikinen beheko solairuei bakarrik eragiten dien jarduketa da, espazio publikoan inolako eraginik izan gabe.

Egoitzazko Hiri Lurzoruaren eremua hiri-bilbe finkatua da. Horregatik, helburua ez da hirigintza-garapen berri bat sortzea, zeinaren antolamenduak, besteak beste, gizonen eta emakumeen arteko tratua eta aukera-berdintasunari erantzun behar dion, eta, hori lortuko dela bermatzeko, genero-arloan izan ditzakeen eraginaren ikuspegitik aztertzea eskatzen duen. Xedea da eremu horretan indarrean dagoen hirigintza-araubidea doitzea, baimenduriko erabilera-esparrua zabaltze aldera. Aldaketa horrek ingurunearen hiri-kalitate orokorra hobetuko du, eta horrekin batera, eraikinen hiri-materialaren birkualifikazioa.

Era berean, jardueraren ondorioz, ez dira aintzat hartzen aukera-berdintasunaren sustapenean eragina duten egoerak, edota emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzean eragina dutenak; eta aldaketak ez du inolako eraginik helburu horiek lortzean.

Horrela, arestian azaldutakotik ondorioztatzen da dokumentu honek ez duela garrantzirik genero-ikuspegian, nahiz eta dokumentu honek gonbita egiten duen, hala badagokio, eremuan proiektatzen diren jarduera, instalazio eta eraikinen diseinuan arlo horrekin zerikusia duten irizpideak txertatzeko.



Egiaztapen-kode segurua:

14157770556717326545

Código Seguro Verificación:

Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: <https://sede.mungia.eus/validacion>

Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <https://sede.mungia.eus/validacion>

